

Liburuak

KRITIKA

Haragizko amoreak.

Omar Nabarro.

Susa.

77 orrialde. 13,50 euro.

Helduen literatura

Igor Estankona



Udaberria heldu da

OMAR NABARROK *Itsastxorien bindikapena* (Susa, 1985) argitaratu zuenetik hogeita bost urte pasatu diren honetan, Edorta Jimenez itzuli da izengoitiak eskaintzen dion mito kutsuaz inguraturik, Arestiri erreferentzia eginez lehenengo poeman, eta Pedro Antonio Añibarro (1748-1830) arratiarraren esaldi indartsu batekin: “Polborea baño prestago/erexegiten da aragizko amorea”.

Txibien sasoiaren delarik itsaspean, epel eta astiro hurreratzen da idazlea poesiaren zeremoniara. Liburuak abiada hartzen du gero, eta ez du atsedunik ematen harik eta bukatu arte. Omar Nabarroren begirada gardena da, ume batena letxe, baina bizitzaren arratsaz hitz egiten digu batik batik. Irakurlearen zentzumen guztiak kitzikatzen ditu mundakarrak *Haragizko amoreak* honetan: belarren ahoak entzuten dira haize gozotan, sudurretatik kresal eta sexu usaina sartzen da, Bilboko herdoila. Harriturik nago ni oraindik liburu honen bitalismo, erotismo, jakituria, sakontasun eta dotoreziarekin. Eta jarrai nezake tasunak jartzen, baina liburu honek azken aldiko poesiari egingo dion ekarpena deskribatzeko motz geldituko nintzateke.

Konfiantza itzelarekin idazten du Jimenezek denboraren markei buruz, naturaren betierekotasunaz, irudimen ia agortezinarekin. Irudien mozkorraldi baten antzekoa da *Haragizko amoreak*, baina ardo zuri freskoaren antzera, mahaitik altxatu arte ez naiz konturatu poema hauek garuna hartu didatela, barruraino pozondu.

Libertateri kantatzen dio idazleak. Zentzumenei. Gozamenari eta oinazeari. Profetak bezala erakusten digu bidea. Ez du erlijio berririk inauguratu, baina liburu honek gogorazten digu ondo idaztea, plazerez idaztea, ironiaren domeinua eta erritmoaren kadentzia berreskuratu beharreko baloreak direla gure poesian, era honetako poesian. Gizon naturala, finean, molderraza da ura bezala, gardena ura bezala. Gizon naturalak ez dio beldurrik biluztasunari, eta denon biluztasunak ikusten ditu. Omar Nabarro itzuli da ba, eta *Aldarri egiten du haragiak* poemarekin bakarrik, hutsean utzi ditu poesia idazten dugunon ahaleginak. Jarraitu egiezu bere pausuei *Haragizko amoreak* aberats honetan zehar, forma literarioa baino harago doan lana da eta: bere bizitzako udazkenean inoiz bukatzen ez den udaberriari buruz hitz egingo dizu. Unibertsoaren durundua dakarte bere hitzek. ■

Karmel aldizkariaren 268. zenbakia

Ohiko moduan, hainbat eduki bildu dituzte *Karmel* literatur-aldizkariaren azken zenbakian. 2009ko azken hiruhilekoari dagokio, eta Patxi Salaberrik, Miel A. Elustondok, Iñaki Sarriugartek, Luis Baraiazzarrak, Patxi Uribarrenek eta Julen Urkizak idatzi dute kultura sailean. Gizarteari eta elizari buruzko



Karmel 268.
Batzuen artean.
Euskal Herriko
Karmeldarrak.
207 orrialde.
13 euro (urteko
harpidetza).

artikuluak ere badaude karmeldarren aldizkariaren eta literatura atalean zendu berri den Joxemiel Bidadorren ipuin bat aurki daiteke, besteak beste. Horrekin batera, Joxemari Urteagaren testu bat, edota Mikel Asurmendi ARGIAko kazetariaren poema bat; baita Juan Kruz Igerabide, Etxahun Aurkenerena eta Castillo Suarezzenak ere. ■

Katalunia Espainiaz nazkatu izanaren zergatiak

Toni Strubell i Truetak orain dela bi urte esan zuen nahikoa zela. *El moment de dir prou* (“Aski dela esateko unea”) argitaratu zuen. Orain, Elkar taldean gaztelaniazko liburuak publikatzen dituen Ttartalo editorialaren bidez, Cervantesen hizkuntzan irakur daiteke, *Hasta aquí hemos llegado* izenburuarekin. Herralde Katalunetako gaur egungo egoera politikoaz idatzi du Strubellek. Bere ustez, Kataluniako gizartea nazkatuta dago marko politiko espainiarrarekin. Pentsalari kataluniarrak gogoeta egiten du frankismoa bezalako gaiak tratatzeko oraindik dagoen tolerantziaren, diktadura gainditzeko ezintasunaz, katalanofobiaz... Azken urteotan

independentismoak bizi duen gorakada ulertzeko oso aproposa. ■



Hasta aquí hemos llegado.
Toni Strubell i Trueta.
Ttartalo.
148 orrialde.
14,25 euro.